

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gautegiz-Arteagako Udala****Iradokizunen informazio-iragarkia eta Plan Orokorra idazteko oinarri gisa balioko duten irizpide eta helburuen onarpena.**

Gautegiz Arteagako Udalak, 2019ko apirilaren 1eko osoko bilkuran, udalerrri honetako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapena jendaurrean azaltzeko izapidean zehar egindako iradokizunen berri ematea adostu zuen, espedientean azaltzen den partaidetza-memorian adierazitako zentzuan. Era berean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko oinarri gisa balioko duten irizpide eta helburuak onartu zituen, espedientean azaltzen den Hiri Antolamenduko Plan Orokorra hasieran onartzeko dokumentua idazteko Plangintza-irizpide eta -helburuen dokumentuan jasotzen diren bezala, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, hedapen handiagoa duen lurraldean eta udal webgunean argitaratzen dena, autoreei aipaturiko erabakiaren harira aurkezturiko iradokizunen eta horien azterketaren berri emateko, espedientearen zati bat osatzen duen partaidetza-memorian azaltzen den bezala; eta jakinarazten da erabaki horren kontra ezingo dela errekurtsorik jarri, izapide hutsezko administrazio-egintza bat baita. Iradokizunak edo hautabideak aurkeztu dituztenek, iradokizun edo hautabide horiek aztertzeke txosten teknikoa ezagutu eta kontsultatu ahalko dute, udal honen webgunean edo udal honetako idazkaritzaren bulegoetan, bulegoaren ordutegien barruan.

Gautegiz Arteagan, 2019ko apirilaren 9an. — Alkatea, Juan Felix Naberan Ozamiz